



ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Asparrengo Udalaren Osoko Bilkurak, Teresa Egurrolaren hilketaren aurrean, erabateko gaitzespena adierazten du.

Asparrengo Udalak, Teresa Egurrolaren sendia momentu zail honetan laguntzeko prest dagoela eta ahal duen laguntza guztia eskaintzeko baliabide guztiak jarriko dituela adierazten du.

Emakumeon aurkako bortizkeria gizarte osoaren lehen mailako arazoa dugu. Berdintasun ezak eta bizitzako eremu ezberdinetan emakumeok pairatzen dugun menpekotasunak, indarrean dagoen gizarte sistema patriarkalean du jatorria. Gaur egungo gizarte honek kulturalki eraiki eta zilegi bihurtu du berdintasun eza. Urtean hainbeste bizitza kentzen dizkigun bortizkeria hau arazo politiko eta publiko larria dugu.

Asparrengo Udalak egoera sakonki aztertzeko eta honelako beste egoerarik berriro inoiz ez gertatzeko neurri eraginkor, arin eta zuzenak aurrera eramateko konpromisoa hartzen du. Genero bortizkeriaren aurka borrokatzeko eta berdintasun erreale baten alde lan egiteko giza baliabide eta baliabide ekonomikoak bermatzeko konpromisoa ere hartzen du Asparrenako Udalak.

Asparrengo Udalak baliabide ekonomiko eta atentzio berezia eskainiko dio hezkuntzan, kalean, parte hartzen dugun beste instituzioetan, gizartean eta, batez ere, gazteengan aurrera eramateko prebentzio eta sentsibilizazioaren lanketari. Jakin badakigu, arazoa erroten konpontzen ez den bitartean berriro ere gertakari tamalgarri hauek errepikatu daitezkeela.

Asparrengo Udalak talde feministak bultzatzeko konpromezua hartzen du, berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta gizon talde guztiei laguntza eta babesa emanez. Halaber, emakumeen indartzea, autoestimua, autodefentsa, hezkidetzatza, indarkeriarik gabeko harremanak, gizontasun eta emetasun eredu berriak, gizon eta emakumeen eskubide berdintasunean oinarritutako harremanak, zeinetan ez den sexuen arteko bidegabeko hierarkiarik emango, eta gai honekiko kontzientziakioa bultzatzera konprometitzen gara, azken finean, benetako berdintasunaren lorpenarako beharreko borroka egiteko konpromezua hartzen dugu.

Honegatik guztiagatik, Asparrengo herritar guztiei, hilketa basati honen aurkako ekimenetan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu, eta zehatz-mehatz oraintxe bertan Herriko enparantzan egingo dugun isileko kontzentrazioan.



DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Pleno del Ayuntamiento de Asparrena manifiesta su más absoluta repulsa ante el asesinato de Teresa Egurrola.

En primer lugar el Ayuntamiento de Asparrena manifiesta que desde este momento pone a disposición de la familia de Teresa Egurrola los recursos de los que dispone para facilitar toda la ayuda necesaria tanto a nivel legal como psicológico y económico.

La violencia contra las mujeres es un problema de orden social, un problema político y público, con origen en el sistema patriarcal que posibilita y mantiene la desigualdad y la subordinación de las mujeres en todos los ámbitos y órdenes de la vida; desigualdad que es construida culturalmente y es legitimada y reproducida por la propia sociedad.

El Ayuntamiento de Asparrena se compromete a analizar en profundidad y poner en marcha las medidas eficaces, efectivas, ágiles y directas para que este tipo de situaciones no se vuelvan a dar nunca más. Nos comprometemos, así mismo, a garantizar los recursos económicos y humanos para lograr una igualdad real y para luchar contra la violencia de género en todas sus expresiones e instamos al resto de instituciones a hacer lo propio.

Nos comprometemos también a prestar una especial atención, además de los recursos necesarios, a la prevención y sensibilización sobre la violencia de género, desde la educación, en la calle, desde las instituciones, en la sociedad, incidiendo especialmente en la juventud.

Consideramos que mientras este problema no se aborde desde su raíz, es decir, desde todas las estructuras e instituciones que mantienen la desigualdad entre mujeres y hombres, este tipo de muertes, desgraciadamente, van a seguir ocurriendo.

Nos comprometemos y adquirimos el compromiso de apoyar a las organizaciones feministas, a todos los grupos de mujeres y hombres que trabajan a favor de la igualdad y la equidad, y fomentar el empoderamiento de las mujeres, la autoestima, la autodefensa, la coeducación, las relaciones no violentas, nuevos modelos de masculinidad y feminidad, nuevas referencias de relaciones basadas en la igualdad de derechos entre mujeres y hombres y no en injustas jerarquías, y la concienciación; en definitiva, la lucha a favor de la igualdad y equidad.

Por todo ello queremos hacer un llamamiento a la ciudadanía de Asparrena a participar en los actos de repulsa ante este brutal asesinato y en concreto a la concentración silenciosa que a continuación celebraremos.